

Ikastetxe bat premiaz ebakuatu behar denean irakasleentzako oharrak.

1. Ikastetxeko zuzendaritzak koordinatzaile orokor bat izendatuko du, simulakroaren ardura osoa bere gain hartu eta operazio guztiak koordinatuko dituena. Halaber, ordezeko koordinatzaile bat izendatuko da.
2. Koordinatzaile bat izendatuko da solairu bakoitzeko, solairu horretan egingo diren jardueren ardura bere gain hartuko duena. Halaber, solairua ebakutzeko zenbat denbora erabiltzen den eta irteten diren ikasle kopurua kontrolatuko ditu.
3. Simulakroaren eguna baino nahiko lehenago, irakasle guztiak koordinatzaile orokorrarekin eta solairuetako koordinatzaileekin bilduko dira, jarraituko den plana egiteko, eraikin bakoitzaren ezaugarri arkitektonikoen arabera, eta jarduera guztiaren gorabeherak kontuan hartzeko; izan ere, ondorengoak gauzatuko dituzte: irteteko fluxuak planifikatu, eraikinaren gune kritikoak, kanpoan ikasleak kontzentratuko diren guneak eta erabiliko diren irteerak, ariketa hau egiteko blokatutakotzat joko dena erabakiz, zehaztu.
4. Ebakuatutako ikasleek eskola-esparrutik irten eta ikastetxearenak ez diren guneak hartu behar badituzte, behar diren ardurak hartuko dira trafikoari begira eta, behar izanez gero, agintariei edo, horrela balegokio, partikularrei jakinarazi beharko zaie.
5. Halaber, irteera bakoitzeko pertsona bat eta eraikinaren kanpoaldean egongo den beste bat izendatuko dira. Kanpoan egongo denak ebakuazioak zenbat irauongo duen kontrolatuko du.
6. Irakasle bakoitzak bere gain hartuko du bere ardurapean dauden ikasleen mugimenduak kontrolatzearen ardura, koordinatzaile orokorrak eta solairuetako koordinatzaileek emandako argibideen arabera.
7. Irakasle bakoitzak, gelan, bere taldearen estrategia antolatuko du eta, horretarako, funtzio zehatz batzuk egiteko ikaslerik arduratsuenak izendatuko ditu: leihoak ixteko, ikasleak zenbatzeko, gauza pertsonalak eraman ez ditzaten kontrolatzea, etab...Horrekin ardura handiago eman nahi zaie ikasleei ariketa honetan.
8. Ikasle guztiak irten direnean, irakasle bakoitzak bere ardurapean dituen gelak eta esparruak hutsik dauden egiaztatuko du, ate eta leihoak itxita utziz eta komunetan eta ondoko lokaletan ikaslerik ez dagoela egiaztatuz.

9. Pertsona bati edo batzuei emango zaie, alarma-seinaleek jo ondoren, eraikinaren instalazio orokorrak orden honetan deskonektatzearen ardura:
 1. Gasa.
 2. Argindarra.
 3. Gasolioaren hornikuntza.
 4. Ura, bakarrik suteetako ur-hargunerako hornikuntza sare orokorretik aparte denean.
10. Pertsona bati emango zaio pertsona elbarriak edo mugitzeko arazoak dituztenak, baleude, ebakuatzearen ardura.
11. Simulakroaren eguna baino lehenago, ikastetxeko zuzendaritzak egin nahi den ariketari buruzko informazioa emango die ikasleen gurasoei, alarma edo izua izan ez dadin, baina egingo den eguna eta ordua zehaztu gabe.
12. Halaber, eta simulakroa egin baino egun batzuk lehenago, ariketa honen zehaztasun eta helburuen berri emango zaie ikasleei, baita jarraitu behar dituzten argibideak ere.
13. Lehenago ere esan denez, ariketa hau ondo ateratzeko oso inportantea da simulakroa egingo den une zehatza aldeztatik ez adieraztea, ikastetxeko zuzendariak erabakiko duena, eta ez zaie ikastetxeari lotutako pertsonen (irakasleak, gurasoak, pertsonal laguntzailea) inolaz ere adieraziko, ezustean egiteak egiazko premia bat simulatzeko asmoz.
14. Ariketaren hasieran, alarma-seinale bat (txirrina, sirena, ezkila edo ahoz) emango da, ikastetxean dagoen ekipamenduaren arabera, eraikinaren alde guztietara iritsiko dena. Dagoen alarma-sistema behar bezain indartsua ez bada eta jolasaldiaren edo eskola-jarduera batzuen bezalako hots-seinale batzuetatik argi bereizten ez bada, aipatutako baldintzak beteko dituen konponketa alternatibo bat bilatu beharko da.
15. Solairuak era ordenatuan ebakutzeko, ondorengo irizpideen arabera jokatu da:
 1. Simulakroa hasteko seinalea ematean, beheko solairukoak izango dira eraikinetik irtengo diren lehenengoak.
 2. Aldi berean, goiko solairuetakoak era ordenatuan mugituko dira hurbilen dauden eskaileratarantz, baina beheko solairuetakoak irten arte ez dira jaitsiko.
 3. Taldeka irtengo da solairu bakoitzetik; eskaileretatik gertuen dauden gelak izango dira irtengo diren lehenak, ordenan eta taldeak nahasi gabe.

16. Beheko solairuaren irteeretan ebakuazio-fluxuak solairuaren zabaleraren eta irteeren egoeraren arabera ordenatuko dira.
17. Simulakro honetan eraikinaren ohiko irteerak erabiliko dira, ez besterik. Leihoak, terrazetara ematen duten atearak, barne patioak, etab...ez dira simulakro honetan erabiltzeko irteeratzat jotzen. Larrialdietarako eskailerak izanez gero, beraietara iristea erraza den eta ondo funtzionatzen duten egiaztatzeko erabiliko dira.
18. Igogailuak edo karga-igogailuak, izanez gero, ez dira pertsonak ebakutzeko erabiliko. Halaber, ez dira irekiko sua izanez gero haize-korronteak eta garrak hedatzea eragingo zituzten leiho eta atearak.
19. Ikasleek senez normalean erabiltzen dituzten irteera eta eskaileratara jotzen dutela eta agian kasu konkretu batean egokienak izango ez direla kontuan hartuta, komeni da gorabehera hau aintzat hartzea simulakro hau planifikatzeko orduan. Gauzak horrela, gela bakoitzeko irakasleak, eta ez beste inork, izango du irteteko alde aurretik ezarritako norabidean ikasleak eramatearen ardura.
20. Ikastetxeko pertsonalaren aldetik, presa edo urduritasuna adierazten dituzten portaerak ez izaten saiaturiko da, jarrera hori ikasleei ez transmititzeko, ekarriko lituzkeen ondorio txarreatatik.
21. Eraikinetik irten ondoren, ikasleak alde aurretik erabakitako kanpoaldeko toki desberdinetan elkartuko dira, betiere irakasle arduradunaren kontrolpean. Irakasle honek bere taldeko ikasle guztiak dauden kontrolatuko du.
22. Ebakutzeko ariketak bukatu ondoren, talde koordinatzaileak ikastetxe guztia ikuskatuko du, agian gertatu diren irregulartasun edo akatsak antzemateko asmoz.
23. Irakasle guztien bilera bat egitea gomendatzen da simulakroaren ondoren, ariketa komentatu eta ebaluatzeko, eta ikastetxeko zuzendariak txostena idatziko du.
24. Irakasle guztiek erabateko koordinazioan eta lankidetzan jardutea funtsezkoa da simulakro hau ondo ateratzeko, bai simulakroa planifikatzean, bai aurrera eramatean. Irakaslea ahalik eta gehien arduratuko da bere zaintzapean dauden ikasleen portaeraz, pertsonen istripuak eta kalteak izan ez daitezzen ikastetxean.